

**Cay Biscayko**

**kaiolatuak**

**Lau Urdin**

## **Pertsonaiak**

**Natxo**

**Amaia Z.**

**Fermin**

**Amaia M.**

**Horatio (Fermin desagertzean)**

**Narratzailea**

**(Aktore egokienez narratzailearena eta Horatiorena ere egin behar dute)**

## OHARRA

“Cay Bizkaiko kaiolatuak” izeneko irratsaioa ‘realficción’ edo ‘real person fiction’ izenez ezagutzen den generoaren barruan kokatzen da, hau da, bizitza errealeko pertsonaiak (edo haien *alter egoak*) jartzen ditu jokoan, fikziozko ekintzetan eta, gainera, kasu honetan, etorkizunean.

Aipatu genero hori gero eta gehiago erabiltzen da gaur eguneko literaturan eta guztiz zilegia da. Gogoratu besterik ez da egin behar EITBko hainbat saiotan zenbait pertsonaia ezagunekin egindako parodiak: Argiñano, Josean Tolosa, Euskitze, Hasier Etxeberria, eta abarrekin. Edo, literaturaren alorrean, Sebald, Vila-Matas, Martínez de Pisón, Javier Cercas idazleek egindakoak.

Hortaz, irratsaio honetako pertsonaien ahotsek Natxo de Felipe, Amaia Zubiria, Fermin Muguruza eta Amaia Montero pertsonaienak imitatu beharko dituzte ahalik eta ondoen, pixka bat zahartuz (2030. urtean baikaude). Ez da zeregin ezinezkoa, horrelako imitazio asko egin baitira EITBn azken hogeitun urteotan.

Zehazkiago:

-Natxo de Felipek bizkaiera kutsua izango du, harrosko samarra.

-Amaia Zubiria ekialdeko erlijioaren batera enrolatutako hippy-a izango da, oo espiritualala.

-Fermin Muguruza bere ohiko hizkeran, akatsen bat edo beste eginez eta asko oihukatuz.

-Amaia Montero ñoñostiar pija itxurakoa izango da, duela gutxi euskaldundua.

-Horatio CSI saioan bezalakoak izango da, poliki hitz egingo du eta esaldi bakoitza munduko azkena balitz bezala esango du.

Hasierako sintonia. Narratzaileak emanaldiaren izenburua esango du:

Cay Biscayko kaiolatuak

LEHEN KAPITULUA:

### **Pertsonaiak**

Narratzailea

Natxo

Fermin

Amaia M.

Amaia Z.

2030. urtea da eta Floridan gaude. Baina ez Gasteizko Florida parkean, ezta Kultur Etxean ere, Estatu Batuetako Florida estatuan baizik. Zehazkiago, penintsula hura inguratzen duten ‘cayo’ edo uharte txikietako batean, Cay Biscay izenekoan hain zuzen ere.

2030. urtea da eta ordurako ez da ez Euskadi ez Euskal Herririk, Basquerri baizik, herri burujabea eta aberatsa. Euskal Sortzaileen Elkarte (ESE) ere oso aberatsa da mende hasieran egindako inbertsio inmobiliarioen eraginez eta sortzaile erretiratuentzat egoitza baten bila ibili da. Amerikako Estatu Batuen presidentek, Henry Harriet euskal jatorrikoa izaki, horren berri izan bezain laster, Cay Biscay uhartetxea erosi, eta pozarren utzi du Elkartearen esku. Eta dagoeneko hor hasi dira bizitzen lehen lau kideak, musikariak oraingo, zahartzaro lasai, emankor eta baketsua izango dutelakoan... Baketsua?

& & &

NATXO: (*'Aita-semeak tabernan daude...'* kantatuz. *Esku-danborra tarteka joz mintzatzen da*). Hau da hau, goiz baketsua! Oskorri ederra, itsasoa bare, eguzkia epel, palmondoen gerizpe goxoa... Oi, oi, oi! Nahi nuke beti horrela bizitzia. Hala ere, ondo pentsatuta, faltan botatzen ditut Bilbaoko alde zaharra, Arestiren itzala... Oh, la, la!

FERMIN: (*'Sarri, Sarri, Sarri, Sarri...'* kantatuz). Laostia, Natxo, zer dugu, xaharra? Kontenplazioan eta oraindik gosaldu gabe? Mu-gi-ttu, motel! Poesiarekin bakarrik ezin da bizi. Aizu-aizu, utzi herdoiltzeari eta etorri arratsaldeko manifara. Kriston ondo pasatuko dugu. Amaieran sorpresa bat ere prestatu dut.

NATXO: Badakizu, Fermin: ni beti herri anormal bateko kantari anormala izan naiz. Utz nazazu bakean, nire malenkoniarekin. Gainera, zer dira manifa kontu horiek? Zu beti bazterrak nahasten, Fermin! Zer asmatu duzu oraingoan?

FERMIN: Ez zara enteratu? Uhartea kartelez josi dugu-ta! 'Erabakitzeke eskubidearen alde!'. Jo-ta-ke! Yankiak irla erosi digu, bai, Cay Biscay orain euskaldunona da, baina bertakoek autodeterminatzeko eskubidea dute. Cay Biscay burujabe nahi dugu guk (*Sarri, Sarri kantuaren doinuarekin*)! U-u-u-u!

NATXO: Larregiko burujabetasuna da nire ule urdinetarako... Begira, hor dator Laorejako Amaia, zure herrikidea.

FERMIN: Herrikidea, herrikidea... Biok irundarrak gara, beno, ginen, zeren ni orain mundutarra naiz, eta kitto! (*Amaia M. 'Lau teilatu...'* kantatuz *hurbiltzen ari da*). Egun on, Belarris!

AMAIA M: Mesedez eta *please*, Fermin, zenbatetan esan behar dizut: ez erabili izen hori nire aurrean. Kontu zaharregiak dira eta botagura ematen didate.

FERMIN: Ahohandi samarra zara, Amaia, ez da horrenbesterako. O-o-oh! Badakizu guk La Oreja esan beharrean la Ojera esaten genizuela?

AMAIA M: Mmmm (*Haserre antzean, Fermin jasan beharra nabarmenduz*). Jopelas! Nik argi esan dizuet aurrerantzean niri Amaia Saldias deitzea nahi dudala, Basquerri berrian amaren abizena berreskuratu nahi nuke. Mikel Erentxunekin *Lau teilatu* kantatzeak bizitza aldatu zidan niri (*Berriro ahopean kantatzen hasi da*).

FERMIN: (*Natxoren 'Hum, hum, hum!' eta danbor hots apala entzuten den bitartean*). Baina zure belarriak baino gehiago, zure ahoa behar dugu manifan. Esan ozenki, Amaia: Cay Biscay, burujabe orai!

AMAIA M: Baina Cay Biscay independientea baldin bada, maukarik gabe geratuko gara. Eta hemendik botatzen bagaituzte, zer? Eh, zer? Jopelas. Uharte hau Donostia baino ederragoa da! *Very-very beautiful!*

FERMIN: Laostia, aizue, munduko herri guztiek dute autodeterminaziorako eskubidea. Gogoratzen naiz Kurdistanen jo genuenean, hango anai-arebeekin, sekulako kontzertua, kriston ondo... Hemendik botatzen bagaituzte, arrazoiakin izango da, keostias. Ni munduko biztanlea naiz eta... Jamaica ere ez da leku txarra, ezta?

AMAIA Z: (*'Loa, loa, txuntxurunberde...' kantatuz*). Ni ere hala sentitzen naiz, adiskideok, munduko biz-tan-le-a. Noomada. Baina oreka kosmikoari eusteko, Fermin, iraultza geure baitan egin behar dugu. Egun *ommmm...*

FERMIN: Ez izurratu, konpai! Erotu egingo nauzue. Manifara etorri ezean, irla dinopolisa bihurtuko duzue eta zaharkin hutsak izango zarete. Izurrai!

AMAIA Z: Nik igoal parte hartuko nuke, baina isilean joanen bagina, oihurik egin gabe, edo kantuan bestela. Niretzat kantatzea maitasuna egitea bezalakoxea baita...

NATXO: Jesus, Maria eta Koxme...

AMAIA M: Fermin, Cay Biscay-n lau kantari gaude, lau teilatu bezalakoak, eta bakoitzak ilargiari begiratzeko bere modu propioa dauka...

FERMIN: Orduan, zer, manifara etorriko zarete, bai edo bai!?

& & &

Narratzailea: Eta denak gosaltzera joan dira, baina nor bere pentsamenduekin. (*Segidan entzungo direnak off-ean bezala entzungo dira, barne ahotsa bailitzan*).

AMAIA Z: Ni Amaia Belarris txotxolomerke horrekin, ezta pentsatu ere. Kaskarinagorik...

AMAIA M: Badakit Ferminek pijotzat nauela eta horrexegatik joan beharko dut, baina progre eta iraultzaile itxurako benetako pijoa bera da. Dena dela, kokoteraino nago bere adar jotzeekin. Azkenean, ea bera ez den joaten...

NATXO: Ferminek beti protagonismoa behar, beti arrakasta... Bost axola besteok, zaharrok... Ni oso bakarrik sentitzen naiz, oso bakartua. Beharbada Amaia joango balitz, Zubiria esan nahi dut...

FERMIN: Inork ez du esperoko amaierako sorpresa...

& & &

Irratsaioaren sintonia. Haren gainetik, ahots batek honela esango du:

Jarraituko du.



Hasierako sintonia. Narratzaileak emanaldiaren izenburua esango du:

## Cay Biscayko kaiolatuak

### BIGARREN KAPITULUA:

#### **Pertsonaiak**

Narratzailea

Amaia Z.

Natxo

Amaia M.

2030. urtea da eta Floridan gaude. Baina ez Gasteizko Florida parkean, ezta Kultur Etxean ere, Estatu Batuetako Florida estatuan baizik. Zehazkiago, penintsula hura inguratzen duten 'cayo' edo uharte txikietako batean, Cay Biscay izenekoan hain zuzen ere.

2030. urtea da eta ordurako ez da ez Euskadi ez Euskal Herririk, Basquerri baizik, herri burujabea eta aberatsa. Euskal Sortzaileen Elkarte (ESE) ere oso aberatsa da mende hasieran egindako inbertsio inbiliarioen eraginez eta sortzaile erretiratuentzat egoitza baten bila ibili da. Amerikako Estatu Batuen presidentek, Henry Harriet euskal jatorrikoa izaki, horren berri izan bezain laster, Cay Biscay uhartetxea erosi, eta pozarren utzi du Elkartearen esku. Eta dagoeneko hor hasi dira bizitzen lehen lau kideak, musikariak oraingo, zahartzaro lasai, emankor eta baketsua izango dutelakoan... Baketsua?

Oraingo lau musikari elkartu dira zahartzaro lasaia igaro nahian, baina Ferminek, geldi egonean ezin egon, eta manifestazio bat antolatu du uhartearen autodeterminazioa aldarrikatzeko. Eta dagoeneko hasi dira ezinikusiak, liskarrak, misterioak...

& & &

(*Manifestazioaren zurrumurruaren gainetik, oihuak: 'Self-deter-mina-tion!', 'Cay Biscay inde-pen-dent!', 'Free-dom for Cay Biscay', reggae kanturen baten oihartzuna...).*

AMAIA Z: (*'Loa, loa, txuntxurrunberde...'* kantatzen hasi eta berehala). Ez dakit oso ondo zer egiten dudan manifa honetan, Natxo. Batzuetan pentsatzen dut aberriek yogurt-en iraugipen data dutela, eta ni noomada sentitzen naiz, noomada.

NATXO: (*Esku-danborra tarteka joz mintzatzen da, oraingoan bere buruarekin, ahopeka*). Euskaltzaindiak zenbat kalte egin duen... Iraungipena! Kaduzidatea esanda, denok mila bider hobeto ulertuko genuke. (*Ozenago orain*): Oi, Ahhharesti, zure falta ordainduko dugu garesti!

AMAIA Z: Ez dakit esan dizudan ni noomada sentitzen naizela, Natxo, gustatuko litzaidakeela orain euskaldun, orain senegaldar, orain kubatar sentitzea... Horixe aldarrikatuko nuke nik: aberri promiskuitatea. Ez zaude ados?

NATXO: (*Ahopeka: Jesus, Maria eta Koxme! Emakume honek badu zerbait...*) Aldarrikatzeaz ari garela, Amaia, ez dut Fermin ikusten. Harritzen naiz bera ez etortzia...

AMAIA Z: Bazkalondoan, egoitzako 'The Pub Subentzionatuan' ikusi dut, Amaia Belarrisekin Coca Cola hartzen... Ez naiz kuskuseroa, baina urrundu naizelarik, atzera begiratu, eta balantzaka ikusi dut, botaka egin behar balu bezala, tripari eusten eta itsasoan barneratzen.

NATXO: Horra gure internazionalista, Koherentziya kamarada... Zer eta Coca Cola!

AMAIA Z: Ez izan pentsamendu txarrik, Natxo, bilatu armooonia, hartu arnasa sakoom, sentitu isleño, sentitu indigena, bilatu energia kosmikoa!

NATXO: (*Ahopeka*: Kosmikoa edo komikoa...). Ferminek goizean ez al du esan sorpresa bat zuela? (*Ahopeka berriro*: Ai, hau bihotzeko mina eta oinazea, hau malenkoniya. Mutilak masak, jendetzak inguratzia lortu du, Kurdistanen, Palestinan edo Oporton: Oi, arrakasta! Baina ni herri anormal bateko kantari anormala izan...). Ez du ba Amaia belarrisek herrikidearekin aferaren bat izango?

AMAIA Z.: (*Ahopean*). Otsoa aipatu, eta otsoa azaldu...

AMAIA M: Arratsalde on, lagunok! Hau giro ederra, zenbat lore, zenbat kolore! Zer ikusirik ez lehengo Euskadiko manifestazio tristeeekin... Eta, jopelas, Amaia, a ze mutil puskak... Platera aurrean jartzeko modukoak... / *'m very happy!*

NATXO: Aizu, Amaia Saldias (*ironiaz*), ikusi ete duzu Fermin? Goizean sorpresa bat ere aipatu du...

AMAIA Z: Begira, manifaren amaierara iristen ari gara eta hori eszenategi bat da, ezta?. Beharbada hori izango da sorpresa. *Alehop, surprise!* Guri kantatzeko eta mintzatzeko aukera ematea.

NATXO: Baina eszenategian ere ez dago. Bai bitxiya!

& & &

Narratzailea: Esan bezala, manifestazioa helmugara iristen ari da eta eszenategiak hutsik jarraitzen du. (*Manifestazioaren zurrumurruaren gainetik azken oihuak itzaltzen entzuten dira: 'Self-deter-mina-tion!', 'Cay Biscay inde-pen-dent!'.*)

& & &

AMAIA Z: Aizue, eszenategi bat hutsik, musika ekipoarekin, eta gu hemen. Ni neu igoko nintzateke kantuan hasiera... Niretzat kantatzea maitasuna egitea bezalakoxea da... (*Urrats batzuk, hots batzuk entzun ondoren, megafoniatik: 'Loa, loa, txutxurunberde...' Eta berehala manifestarien txistu hotsak).*

NATXO: Utzidazu niri, Amayita (*Motel hasi da, danborraren laguntzaz: 'Aita-  
semeak tabernan daude, ama-alabak txokoan...'. Txistuak ugaltu egiten  
dira*). 'Usurpadoreak', 'Kolonizatzaileak ez!'.

AMAIA M: (*'Lau teilatu' kantatzen hasi da, baina jendeak 'Get out!, Kanpora!  
Off!' oihukatu du, gero eta ozenago.*)

& & &

Narratzailea: Eta denak, inon ageri ez den Fermin izan ezik, burumakur joan dira, baina nor bere pentsamenduekin. (*Segidan entzungo direnak off-ean bezala entzungo dira, barne ahotsa bailitzan*).

& & &

AMAIA Z: Fermin demonio honek saltsa-maltsa ederra eragin du! Uste baino okerrago egonen zen agian...

AMAIA M: Fermin, ai, Fermin, azkenean mendekatu zaitut, ez dakit zein sorpresa zenuen guretzat, baina ni aurreratu natzaizu: arratsaldean, The Pub Ibiltarian, Baileys kopatxo bat hartzera animatu zaitut, eta gero, egarrituta zeundela-eta, Coca-Cola atera dizut, freskagarri... Zuk oso esaneko, oso aldeko ikusi nauzu, oso *fan*, baina, gizajoa, ez dakizu ziria sartu dizudala, Baileys-a Coca-Colarekin nahastuta, gogortu egiten da sabelean, zementua bezala, eta HIL-GA-RRRI-A izan daiteke. Azkenean, zerk eta Coca-Colak, nortzuek eta ipar amerikarrek hilko dute gure kantari ustezkoa. Hala ere, ez dut uste horrenbesterako izango denik. Belar txarra ez da erraz hiltzen... (*'Horrelakoa da bizitza, egin zazu behar duzuna!'* kantatuz).

NATXO: Fermin txotxolobariku hori desagertuta txarto ez. Bai, faltan botatzen ditut Bilbaoko alde zaharra, Arestiren itzala... Oh, la, la! Baina Amaia noomadaren gertutasuna, Amaia Belarrisen presentzia, ni haien gizon bakar... Jesus, Maria eta Koxme!

& & &

Irratsaioaren sintonia. Haren gainetik, ahots batek honela esango du:

Jarraituko du.

Hasierako sintonia. Narratzaileak emanaldiaren izenburua esango du:

Cay Biscayko kaiolatuak

HIRUGARREN KAPITULUA:

**Pertsonaiak**

Narratzailea

Horatio

Amaia M.

Amaia Z.

2030. urtea da eta Floridan gaude. Baina ez Gasteizko Florida parkean, ezta Kultur Etxean ere, Estatu Batuetako Florida estatuan baizik. Zehazkiago, penintsula hura inguratzen duten 'cayo' edo uharte txikietako batean, Cay Biscay izenekoan hain zuzen ere.

2030. urtea da eta ordurako ez da ez Euskadi ez Euskal Herririk, Basquerri baizik, herri burujabea eta aberatsa. Euskal Sortzaileen Elkarte (ESE) ere oso aberatsa da mende hasieran egindako inbertsio inmobiliarioen eraginez eta sortzaile erretiratuentzat egoitza baten bila ibili da. Amerikako Estatu Batuen presidentek, Henry Harriet euskal jatorrikoa izaki, horren berri izan bezain laster, Cay Biscay uhartetxea erosi, eta pozarren utzi du Elkartearen esku. Eta dagoeneko hor hasi dira bizitzen lehen lau kideak, musikariak oraingoz, zahartzaro lasai, emankor eta baketsua izango dutelakoan... Baketsua?

Oraingoz lau musikari elkartu dira zahartzaro lasaia igaro nahian, baina Ferminek, geldi egonean ezin egon, eta atzo manifestazio bat antolatu zuen uhartearen autodeterminazioa aldarrikatzeko. Eta dagoeneko hasi dira ezinikusiak, liskarrak, misterioak...

Eta denak joan ziren Ferminen 'Freedom for Cay Biscay' lelopean antolatutako manifestara. Denak..., Fermin bera izan ezik. Non ote dago? Zer gertatu ote zaio? Manifestaren biharamunean...

& & &

HORATIO: (*CSI Miami* –ko sintoniaren hasiera). Erretiratuta ere, ez naute bakean uzten... Esadazue: zein da desagertutakoaren izena?

AMAIA M.: (*Gozoegi, koipetsu*): Fer-Fermin, Horatio jauna. Esan behar dizut zure jarraitzaile fidela nintzela CSI telebistan botatzen zutenean, eta, *of course*, kasik klasiko bat zela niretzat... Beharbada zuk ere entzungo zenuen nire diskoa, *Lo que te conté mientras te hacías la dormida*, Los Angeles-en grabatu nuen beste klasiko bat...

HORATIO: (*Amaia M-ren jarduna etenez, eta ohiko baretasunez*). Fermin, hori bai klasikoa. Aspaldiko oporraldi batean, Las Vegas-eko Grissom-ek Navarre-ra eramanez ninduen San Fermin jaietara. Nire kolegak arbasoak zituen Basquerrin. Gogoratzen dut lasterketa batean bazirela zezenez izeneko abere batzuk, gaur egun desagertuak, zezen-circus batera eramanez eta ezpataz hiltzen zituztenak. Fermin zezen-circus hartan ikusi nuen kantatzen. Oraindik ere gogoan dut, '*Larry, Larry...*' ('*Sarri, Sarri*'ren doinuarekin), edo halako zerbait... Baina lana lana da eta, gurera etorrita, (*etsipenez*) Fermin hori urrutira etorri da hiltzera.

NATXO: Arrazoi duzu, Horatio, larri-larri gagoz, Fermin aurkitzeko gagoz, baina parkatu: guretzat Fermin oraindiño desagertuta baino ez dago. Guk dakigula, oraindiño ez da beraren gorpua agertu...

HORATIO: Zer dakizu zuk? Ñabardurak, puff, hasiberrien ñabardurak... Eskarmentuz dakit zenbait orduz desagertutako gehienak hilda agertzen direla Miami estatuan: hil-da. Hobe duzue itxaropen faltsurik ez egitea.

AMAIA Z.: Bakea eta maitasuna, Horatio jauna. Ene aburuz, Natxok arrazoi du: oraingoz, Fermin desagerturik dago, bertzerik ez. Zuen presidente Harri Harriet-ek uharte hau oparitu zigunetik, Estatu Batuetako jendarmeriak ez du eskumenik hemen. Ertzaintzari deitu aurretik, modu pribatu eta diskretuan eskatu dizugu ikerketa egitea, hurbiltasunagatik eta konfiantzagatik. Inori ez zaio komeni albiste lazgarri hau bolo-bolo zabaltzea, ez Harri Harrieti ez Sortzaileen Elkarteari.

HORATIO: Onar dezagun konbentzio hori, oraingoz. Zu Amaia Zubiria zara, ezta? Zer esan diezadakezu Ferminen 'desagerpenaz'?

AMAIA Z.: ('Brodatzen ari nintzen, ene salan jarririk...' kantatzen hasi da).

HORATIO: Ez nago hemen denbora galtzeko. Zer esan nahi didazu kantu horrekin?

AMAIA Z.: '*Brodatzen ari nintzen*' kantua beti sobera matxista iduritu izan zait. Zergatik ez pentsatu gizona dela brodatzen edo josten ari dena, eta emakumea dela gizona erakartzen duena? Atzo, bazkalondoan, kantu horixe xaramelatzen nenbilerarik, Amaia Saldiasekin ikusi nuen, baina balantzaka eta alderoka hurbildu zen hondartzara...

HORATIO: Edanda zegoela esan nahi duzu?



AMAIA Z.: Ez sobera edanik agian, baina ez dut uste Coca Cola bakarrik edan zuenik... Kantuak ere honela dio: *Ron, ron, ron, eta botila ron...* Esango nuke Fermin itsasora botaka egitera joan zela... Baina agian Amaia Saldiasek errango digu hobeki.

HORATIO: Baduzu zerbait esateko, Amaia?

AMAIA M: Jopelas, Horatio, nik ez dakit ezer, baina Natxoren susmoa dut: uste dut Natxok ezin zuela eraman Ferminen arrakasta, Ferminen gaztetasuna... Agian zure senak horixe adieraziko dizu.

HORATIO: Eta zuk, zer diozu, Natxo?

NATXO: Nik bapez. Señorita horren iritziyak ez dit axola. Edonola ere, isleño hauek zein esker txarrekoak diren agerian utzi gura nuke. Atzo *'Aita-semeak'* kantatzen hasi, eta ez zitzaizkidan ba txistuka hasi? Beharbada haiek...?

AMAIA M.: Horretan ados nago. Ni ere, *'Lau teilatu'*, abeslari euskalduna egin ninduen kantua kantatzen hasi orduko, komeriak... Horretaz aparte..., beno... esan behar dut Fermin eta biok zerbait hartzen ibili ginela *'The Pub Ibiltarian'*, baina ez rona, Baileys baizik...

AMAIA Z.: Hortaz, zuk mozkortu zenuen Fermin! Lotsagaldu horrek!

AMAIA M.: Aizu, helduak gara nahi duguna egiteko. Zer uste duzu, Fermin eta biok edateko elkartzan ginen lehen aldia zela, ala?

AMAIA Z.: (*Suminduta*) Edateko? Horrela deitzen diozue orai?

AMAIA M: Baina nork daki nirekin egon eta gero norekin egon zen, agian Natxorekin, edo agian zeurekin Amaia...

HORATIO: Andereak... faborez... Ez dut uste egia osoa esan didazuenik, baina arrasto garrantzitsuak eman dizkidazue Ferminen hilketara (*zalantzan*) 'desagerpena' argitzeko. Bihar arte, jaun-andereok.

*(CSIren sintonia zati txiki bat).*

& & &

Irratsaioaren sintonia. Haren gainetik, ahots batek honela esango du:

Jarraituko du.

Hasierako sintonia. Narratzaileak emanaldiaren izenburua esango du:

## Cay Biscayko kaiolatuak

### LAUGARREN KAPITULUA:

#### **Pertsonaiak**

Narratzailea

Natxo

Amaia Z.

Amaia M.

Ferminen mamua

2030. urtea da eta Floridan gaude. Baina ez Gasteizko Florida parkean, ezta Kultur Etxean ere, Estatu Batuetako Florida estatuan baizik. Zehazkiago, penintsula hura inguratzen duten 'cayo' edo uharte txikietako batean, Cay Biscay izenekoan hain zuzen ere.

2030. urtea da eta ordurako ez da ez Euskadi ez Euskal Herririk, Basquerri baizik, herri burujabea eta aberatsa. Euskal Sortzaileen Elkarte (ESE) ere oso aberatsa da mende hasieran egindako inbertsio inbiliarioen eraginez eta sortzaile erretiratuentzat egoitza baten bila ibili da. Amerikako Estatu Batuen presidentek, Henry Harriet euskal jatorrikoa izaki, horren berri izan bezain laster, Cay Biscay uhartetxea erosi, eta pozarren utzi du Elkartearen esku. Eta dagoeneko hor hasi dira bizitzen lehen lau kideak, musikariak oraingoz, zahartzaro lasai, emankor eta baketsua izango dutelakoan... Baketsua?

Ferminen, geldi egonean ezin egon, eta atzo manifestazio bat antolatu zuen uhartearen autodeterminazioa aldarrikatzeko. Baina kantaria desagertu zela ikusirik, CSIko Horatiori eskatu zioten laguntza, eta horrek ez zuen zalantzarik izan: norbaitek hil zuen Fermin! Cay Biscay-n ilunabarra da orain, eta gure kantari erretiratuak urduri dabilta...

(Afalondoan mintzatzen ari dira rona edaten duten bitartean. Elkarrizketa aurrera joan ahala, gero eta mozkortuago daude hirurak).

NATXO: Ederto afalduta nago! Orain, Amaia, entzun ondo zure belarriarekin eta esan egiya: bazenuen zerbait Ferminekin...

AMAIA Z.: Zerbait baino gehiago, aferaren bat bai!

NATXO: Oi, gazteak, hau hermosurie!

AMAIA M.: Zer gazteak eta zer *snoopykeriak*! Jopelas! Hemen denok gaude erretiratuta, urteetan gogotik lan egin eta gero. Merezitako atsedena disfrutatzen ari gara!

AMAIA Z.: Natxo eta biokin *koomparaturik*, Fermin eta biak gazteak zarete!

NATXO: Pasatu barik, Zubiria, ni mutiko bat eginda nago oraindiño...

AMAIA M.: Bai! The Pub Ibiltariaren 111. diskoa ateratzeko moduan bai, behintzat!

NATXO: Aizu, neskato, errespetu apur bat Aresti handia ezagutu genuenok! Gainera, oraindiño ez diguzu argitu zertan ari zinen Ferminekin... Edanean bakarrik?

AMAIA M.: Fermin eta biok aspaldiko lagunak ginen... gara, esan nahi dut. Herri berekoak izateaz aparte, ahaztu nahi dudan taldean ibili nintzenean harreman handiak izan genituen... Pentsa, behin batean, Ferminek *Ebaki* taldean kantatzen zuenean, gure teloneroak izatea ere eskaini nion... Oraindik ez dakit zergatik esan zidan ezetz! Jopelas. Geroztik, pentsamolde desberdin samarrekoak izan arren, beti moldatu gara oso ongi...

NATXO: Bai, baina ezin ukatu ez zengozala oso ados Ferminek uharte honetan antolatu zuen mugimenduarekin... Botadazu ron apur bat gehiago, faborez.

AMAIA Z.: Utzi zerbait guretzat ere, Natxo! *Room...* Nik oso *oomgi* konprenitzen dut Amaia Saldiasek eta Ferminek, Yin eta Yan izan arren, elkar erakartzea. Mugimendu kosmikoak horrelakoak izaiten dira, aurkako indarrek elkarturik amaitzen dute, horixe dute patua. *'Brodatzen ari nintzen...'*.

NATXO: Ez zaitetz desbideratu, Zubiria, ez desbideratu, otoi. Amaia Belarris Cay Biscayren independentziaren kontra egoan, uste zuen isleñoek hemendik botako gintuztela. Eta, orduan, akabo mauka, akabo pagotxa! Bizitza osoa plazarik plaza ibili eta gero!

AMAIA Z.: Hurbildu botila, Natxo... Bero honekin ez dago lo egiterik, eta roomak trantzean sartzen laguntzen dit. ('Rona edanda mozkortzen naiz, pipia erreta txoratzen naiz' —*hemendik aurrera Natxok ere laguntzen dio*—, 'kortejatzen lotsatzen naiz, nola demontre biziko naiz...', *mantra baten antzera kantatuz*).

NATXO: Are gehiago: nire ustez, Amaia biok batuta zagozie Ferminen desagerketaren aferan. Entzun nire teoria: Amaia Belarrisek mozkortu zuen eta Zubiriyak itsasora bota zuen. Zakurra hilda, akabo arrabiya! *Halaporaquí!* Baina ni ez naiz kontakatilu, eta ez zaituztet salatuko. Kontzientziak, batzuetan, zakur baten antzera egiten du zaunka... Au-au!

AMAIA Z.: Aizu, aizu, Natxo. Ez dizut horrelakorik onartuko. Nik Fermin biziiiiiki maite nuen... maite dut, erran nahi baita. Ziur nago esteka kosmikoren batek lotzen gintuela... gaituela, erran nahi baita. *Room* madarikatu hau, akordeoi hotsa entzunarazten dit... (*Doinurik gabe, akordeoiak, zabaltzean eta ixtean ateratzen duen soinu urruna entzuten da, hauspo baten antzera*).

AMAIA M.: Aizu, Natxo, nik ere ez nion ile bat ere ukituko Fermini!

NATXO eta AMAIA Z.: (*aldi berean*) Baietz ile bat baino gehiago ere bai.

AMAIA M.: Aizue, pasatu gabe, e? Jopelas. Badakizue zer esan nahi dudana... Berriro daukat kopa hutsik! Bero honekin lurrundu egiten da. Baita ideiak ere. Aizue, eta egia da, nik ere entzuten dut akordeoi notaren bat. Si, do, si, do... (*Berriro akordeoi zurrumurru leun hori kapitulua amaitu arte*).

NATXO: Belarri ona izan duenak... Baina bai, bihar goizean, Horatio bueltatzen danean, argituko da kontua. Gu baino zaharragoa da Horatio azeriya! Hip!

FERMINEN MAMUA: (*Ultratunba ahotsez*). Hau duk hau, konpai! Justizia egitera itzuli naiz! 'Basquerritarra naiz eta harro nago, hilda ere kriston ondo nago'.

AMAIA M., NATXO eta AMAIA Z.: (Aldi berean): Ferminen mamua!!!  
Ahhhhhhh!!! (Korrika alde egitearen hotsa, abiatzean botila bat apurtzen da:  
kristalaren zarata).

AMAIA Z.: Goazemazue hemendio!

AMAIA M: Zer erremedio!

NATXO: Atxintxinka, nire edadiarekin..., dedio! (*Danbor hotsa jotzen entzuten da*).

& & &

Irratsaioaren sintonia. Haren gainetik, ahots batek honela esango du:

Jarraituko du.

Hasierako sintonia. Narratzaileak emanaldiaren izenburua esango du:

Cay Biscayko kaiolatuak

BOSGARREN KAPITULUA:

**Pertsonaiak**

Narratzailea

Horatio

Amaia M.

Amaia Z.

Natxo

Ferminen Mamua

2030. urtea da eta Floridan gaude. Baina ez Gasteizko Florida parkean, ezta Kultur Etxean ere, Estatu Batuetako Florida estatuan baizik. Zehazkiago, penintsula hura inguratzen duten 'cayo' edo uharte txikietako batean, Cay Biscay izenekoan hain zuzen ere.

2030. urtea da eta ordurako ez da ez Euskadi ez Euskal Herririk, Basquerri baizik, herri burujabea eta aberatsa. Euskal Sortzaileen Elkarte (ESE) ere oso aberatsa da mende hasieran egindako inbertsio inmobiliarioen eraginez eta sortzaile erretiratuentzat egoitza baten bila ibili da. Amerikako Estatu Batuen presidentek, Henry Harriet euskal jatorrikoa izaki, horren berri izan bezain laster, Cay Biscay uhartetxea erosi, eta pozarren utzi du Elkartearen esku. Eta dagoeneko hor hasi dira bizitzen lehen lau kideak, musikariak oraingoz, zahartzaro lasai, emankor eta baketsua izango dutelakoan... Baketsua?

Fermin desagertu egin zen Cay Biscayren autodeterminazioa eskatzeko manifestazioan, eta kantaria nola desagertu den eztabaidatzen ari zirela,



Ferminen espiritua bera agertu zitzaien. Gaur goizean Horatio inspektorea berriz etorriko da. Dena argitzeko gai izango da?

HORATIO: (Pauso hots batzuk entzuten dira, erretiratutako musikarien etxera sartu da Horatio. CSIren sintonia). Kaixo? Egun on! Ez dago inor? (Bere artean). Hemen bada zerbait susmagarririk... Kaixo esan dut!!!

AMAIA M.: (*Biharamun ahotsez*). Egun on, Horatio inspektorea... Zer ordu da? Esan dizut izugarri maite nuela CSI telesaioa?

HORATIO: Bai, Amaia, esan didazu... Non daude besteak?

AMAIA M.: Lotan egongo dira oraindik... Bart berandu arte ibili gara... Fermini buruz hitz egiten. Ai, beldurra gorputzean sartua daukat oraindik! Baina zu ere, jopelas!, beranduegi iritsi zara...

HORATIO: Fermini buruz hitz egiten, bai. Ikusten ditut ron botila hauek huts-hutsik... Eta beste hori hautsita...

AMAIA M.: Bai, bero handia egiten zuen, eta... Baina Ferminen espirituak berak hitz egin zigun!

HORATIO: Argi dago: behar baino gehiago edan zenuten...

AMAIA Z.: Egun *oom!* Ariketa batzuk egin behar ditut gorputza desintoxikatzeko. Ommm... Hara, Horatio inspektorea! Ahantzirik nuen goizian goizik jinen zinela...

HORATIO: Hemen nago, bai, Ferminen desagerketa argitzeko prest. Baina non dago Natxo?

AMAIA M.: Arestian, bainugelan gurutzatu garenean, esan dit gaur ere akordeoi hotsa entzun duela gelatik, hondartzara joatekoa zela ikertzera, eta zu hasteko bera gabe...

HORATIO: (Astiro-astiro akordeoi musika entzuten da, kantu alai bat). Bera gabe, eh? Ongi, ongi...

NATXO: Egun on, lagunok! Ez duzue sinistuko! Naufragio bat izan da! Hondartza akordeoiz beteta dago! Baleak ematen dute, hondoa jota. Itsasontziren batek garraiatuko zituen. Baina badira musika tresna gehiago, bafleak...

HORATIO: Egia esan, ni hori esatera etorri natzaizue. Atzo itsasontzi bat hondoratu zen, zorionez ez dago hildakorik, baina musika kargamendu guztia galdu dute eta nik ikerketa abiarazi behar dut. Baina ez pentsa Ferminena ahaztua dudanik, ez horixe, Natxo, Amaia Zubiria, Amaia Saldias... Entzun dut idazle batzuk etortzekoak direla Cay Biscayko egoitza honetara, baina nik argi dut Fermin hilda dagoela, eta haren heriotza argitu arte, zuek ere ez zaituztedala ahaztuko. Ez ibili urrutiegi.

Narratzailea: Horatiok hitz eman zuen ez zituela hiru musikariak ahaztuko, baina Ferminek ere ez zituen ahaztuak, inondik ere ez... Komisarioak alde egin bezain laster agertu zitzaien.

FERMINEN MAMUA: Hau duk hau, konpai! Justizia egitera itzuli naiz! 'Basquerritarra naiz eta harro nago, hilda ere kriston ondo nago'.

AMAIA M., NATXO eta AMAIA Z.: (*Aldi berean*): Ferminen mamua!!! Ahhhhhhhh!!! (*Korrika alde egitearen hotsa*).

FERMINEN MAMUA: Ez, ez joan! Ni neu joango naiz eta! Miraria gertatu da eta harro nago!!! Amaia Saldias, ez dakit zer eman zenidan eta ez dut pentsatu nahi; Amaia Zubiria, uretan tripako minez eta konortea galtzear nengoela, ez dakit musu eman nahi zenidan edo, ni salbatzearren, ahoz ahokoa egin nahi izan zenidan; Natxo, flotagailu bat gerritik sartu, eta berriro ere uretara atera ninduzunean ez dakit zein zen zure asmoa... Argi dago ez zaretela oso jende solidarioa, internazionalista... Eta kontua da bizirik nagoela, miraria gertatu zela, eta itsasontzi batekoek erreskatatu ninduten. Baina gero zorte txarra izan zuten eta itsasontziak hondoa jo zuen, baina ni bafle batean salbatu nintzen!!! Ozenki esango dut: egurrezko bafle bat zen, eta Jonas bezala, hondartzara ekarri ninduen, lehorrera!!! (*'Sarri, sarri' kantatzen hasi da*). Bai, bafle batek salbatu ninduen!!!

NATXO: Jesus, Maria eta Koxme! (Bera ere 'Sarri, sarri' kantatzen hasi da, Ferminekin batera, apal oraingoz).

AMAIA Z: Ohhhmmm! (Berak ere 'Sarri, sarri' kantatzeari ekin dio).

AMAIA M: (Ozenki): Jopelas! (Ahopean): Belar txarra ez da erraz hiltzen... (Abesbatza osatu da eta denak batera ari dira 'Sarri, Sarri' kantatzen).

FERMINEN MAMUA: Bai, lagunok, bizirik nago baina zuek bakarrik duzue horren berri. Isleñoek borroka jarraituko dute eta martiri bat izango dute: San Fermin!!! Ni neu! Itsasontzikoei esan nien borroka internazionala egin behar nuela Cay Biscayren alde, baina eraso egin zidatela, hil egin nahi nindutela eta, orduan neure burua itsasora bota nuen berriro, eta orain pentsatuko dute naufragioan hil egin naizela. Ez dago gaizki: martiri bihurtuko naute, Cay Biscayko martiria: San Fermin!!! Eta ni bezalako mundutar bati, zer arraio, Cay Biscay txikiegi geratzen zait, eta Jamaicara joango naiz, bizitza berri bat

hastera... baina borrokarekin jarraitzera!!! Zer arraio. Kriston ondo nago. Natxo, atera rona denontzat!!! (*Topa eta kristal hotsa entzuten da, eta denak gero eta ozenago 'San Fermin, San Fermin' kantatzen hasiko dira 'Sarri, Sarri' doinuarekin*).

& & &

Irratsaioaren sintonia. Haren gainetik, ahots batek honela esango du:

Eta fini.